

ANTZINAKO EGIPTO

IKUSI BIDEO HAU:

<https://www.youtube.com/watch?v=5qXgipbSuYY>

NOIZ SORTU ZEN ZIBILIZAZIO HAU?

K.a. 4000 urtean

K.a. 3000 urtean

K.o. 3000 urtean

0. Urtean

NON AURKITZEN ZEN ZIBILIZAZIOAREN ZATIRIK HANDIENA

Afrikan

Asian

Europar

Amerikan

EGIPTOKO ZIBILIZAZIOARENTZAKO ZEIN ZEN IBARIK GARRANTZITSUENA?

Nilo

Eufrates

Amazonas

Tigris

ZERGATIK ZEN GARRANTZITSUA NILO?

- Soroak ureztatzen zituztelako.
- Itsasontziak bertatik nabigatzen zutelako merkantziak garraiatuz.
- Arrainak arrantzatzen zituztelako.
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

NOR IZAN ZEN EGIPTOKO LEHEN FARAIOA?

Nefertiti

Ramses II

Narmer

Kleopatra

KOKATU JAINKO BAKOITZAREN IZENA BERE EZAUGARRIEKIN:

NUT

SET

RA

ISIS

OSIRIS

BASTET

ANUBIS

HORUS

- Egiptoko antzinako mitologian, Eguzkiaren eta kreadioaren jainkoa.



- Ekaitz, gaizkia, ilunpe, basamortu eta ausardiaren jainko egiptoarra, errege gerlarien babeslea. Animalia burua eta gizonaren gorputza zuen.



- Emankortasunaren, berpizkundearen eta hildakoen munduko jainkoa zen. Momifikaturik irudikatu ohi zuten.



- Aireko jainkoa zen. Belatz gisara edo gizakiaren gorputza eta belatzaren burua zuen jainko gisara irudikatzen zuten.



- Osiris-en emaztea eta Horusen ama zen. Ama, ume eta familiaren babeslea eta ezkon leialtasunaren eredu zen.



- Hildakoen hiriaren jauna eta jainkoa zen. Gainera hildakoen espirituak "beste mundura" gidatzeko arduraduna ere bazuen. Osiris eta Neftiren semea zen. Giza gorputzaz eta txakal buruaz irudikatzen zuten.



- Zeruaren jainkosa zen, unibertsoa eta argizagien sortzailea. Emakume biluzi baten moduan irudikatzen zen. Jainkosa honek egunero eguzkia erditzen zuen.




- Etxearen babeslea zen eta bizi poza eta harmonia sinbolizatzen zituen. Katu gisa edo emakume gorputza eta katu burua zuen jainkosa bezala irudikatzen zuten.



KOKATU JAINKO BAKOITZAREN IZENA BERE IRUDIAREKIN:



SET




RA



NUT

ISIS




OSIRIS



BASTET



HORUS



ANUBIS



ADIERAZI ZUZENAK DIRENAK. (9 ERANTZUN ZUZEN DAUDE)

Egiptoarrek hil ondorengo bizitzan sinisten zuten.

Jainko asko zituzten, hau da, erlijio politeista zuten.

Piramideak faraoien hilobiak ziren.

Hilobietan bitxiak, elikagaiak, arropak... gordetzen zituzten.

Egiptoarrek gorpila asmatu zuten.

Hildakoak momifikatu egiten zituzten.

Momiak sarkofagoetan sartzen zituzten.

Hieroglifikoen bidez idazten zuten egiptoarrek.

Idazteko papiroa erabiltzen zuten.

AURKITU INFORMAZIOA INTERNETEN ETA ESAN EGIA ALA GEZURRA DEN.

Egiptoko piramide ezagunenak Keops, Kefren eta Mikerinos dira.	Egia	Gezurra
Keops piramideak 146 metro inguruko garaiera du.	Egia	Gezurra
Momifikatzerakoan gorputz barneko organoak kanporatzen zituzten.	Egia	Gezurra
Katuak ere momifikatzen zituzten.	Egia	Gezurra
Abu Simbel Ramses II. Faraoiak eraiki zuen.	Egia	Gezurra
Shadufak baratzak ureztatzeko erabiltzen zituzten	Egia	Gezurra
Nilon uholdeak gertatzen dira urtero eta horrek baratzetan ongarriak (abono) uzten ditu. Ondorioz barazki asko hazten dira baratzetan.	Egia	Gezurra
Tutankamon 8-9 urterekin egin zen faraoi.		
Tutankamonen hilobian ez zuten altxorrik aurkitu.	Egia	Gezurra
Nilo ibaia munduko ibairik luzeenetakoa da.	Egia	Gezurra
Marrazterakoan irudiak perfilez margotzen zituzten.	Egia	Gezurra

IKUSI BIDEO HAU:

<https://www.youtube.com/watch?v=DMrlYBTaAsE>

IKUSI BIDEO HAU:

<https://www.youtube.com/watch?v=Q1jvRPhL3PM>

BIDEOA IKUSI ONDOREN AZALDU ZURE HITZEKIN MOMIFIKAZIO PROZESUA. ERABILI KONEKTOREAK.

ZER IKASI DUZU EGIPTORI BURUZ? IDATZI BERTAN IKASITAKOA.